



2010 FEBRERO MARZO
OTSAILA MARTXOA

OBILBAO
TEATRO / DANZA

OZIRKUITUA
ANTZERKIA / DANTZA

antolatzailea / organiza

babeslea / colabora





OTSAILA / FEBRERO

17	Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI	“Conviviendo con el caos”	EL BESO TEATRO
18	C.M. Otxarkoaga Udaltegia	“Nunca nos regalaron flores”	BURBUJAS
24	C.M. Begoña Udaltegia	“Incontinencia verbal”	ATAKADOS
25	Iturrigorri Ikastetxe Publikoa	“Conviviendo con el caos”	EL BESO TEATRO

Antzezlan guztiak **19:30** etan izango dira. Todas las funciones serán a las **19:30h.**

MARTXOA / MARZO

3	C.M. San Frantzisko Udaltegia	“Han izanik, hona naiz” ^(euskara)	APURKA
10	C.M. Begoña Udaltegia	“Morir (o no)”	PERIPLO
11	Iturrigorri Ikastetxe Publikoa	“Nunca nos regalaron flores”	BURBUJAS
17	Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI	“...a última hora”	TOTUM
18	C.M. Otxarkoaga Udaltegia	“La más fuerte”	JUSTI LARRINAGA NIA ACOSTA
25	C.M. San Frantzisko Udaltegia	“Cuerpos de barro”	LUNA LLENA

Antzezlan guztiak **19:30** etan izango dira. Todas las funciones serán a las **19:30h.**

ZIRKUITUA sortzaile eta antzerki eta dantza talde hasi berriei beren lanak taularatu eta jendaurrean aurkezteko eskainitako aukera paregabea da. Esparru ezin egokia da, Bilbon eratutako antzerki proposamenik freskoenak eta gaurkoenak ikusi ahal izateko Bilboko auzoetan.

ZIRKUITUA representa una oportunidad para que nuevos creadores y grupos de teatro y danza, puedan poner en escena y representar ante el público sus trabajos. Es el ámbito idóneo para asistir en cada Distrito, a las propuestas más frescas y actuales creadas en la Villa.

Otsailak 17 Febrero
Otsailak 25 Febrero

“Conviviendo con el caos”

El Beso Teatro

Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI
Iturrigorri Ikastetxe Publikoa

Oroimenean erneta, behin eta berriz azaleratzen dira gomutak, dagoeneko eurena ez den denborako espazioa hartu nahian. Anabasan, nahas-mahasean dauden oroipenak dira, iraganean oinazez, bakardadez, alaitasunez eta isiltasunez osaturiko bideetan barrena ibilitakoak. Noizbait denok zapaldu ditugun bideak.

Luisje Moyanok eszenara eroandako obra hau Oscar Alberdiren poesiako metaforetan islatuta ikusi dituen baina bere-bereak diren bizipenez betetako proposamena da.

Óscar Alberdi pentsalari eta olerkari bilbotarra da, obra honi izena eman dio liburua argitaratu duena oraintsu: **“Conviviendo con el Caos”**.

Brotando de la memoria, los recuerdos afloran una y otra vez buscando ocupar su espacio en un tiempo que ya no les corresponde. Son recuerdos llenos de desorden, de caos, que han recorrido en el pasado caminos de dolor, de soledad, de alegrías, de silencio. Caminos que todos alguna vez hemos vivido. Una obra llevada a escena por Luisje Moyano en una propuesta llena de sus propias vivencias que ha visto reflejadas en las metáforas de la poesía de Oscar Alberdi.

Óscar Alberdi es un pensador y poeta bilbaíno, que ha publicado recientemente el libro que hace honor a esta obra: **“Conviviendo con el Caos”**.



Otsailak 18 Febrero /
Martxoak 11 Marzo

“Nunca nos regalaron flores”

Burbujas

C.M. Otxarkoaga Udalgia
Iturrigorri Ikastetxe Publikoa

Bizitza zure aurretik pasa eta bizirik irauteko lain baino ematen ez dizunean... Bat-batean aurreko beste edozein leku baino beldurgarriago batekin egingo duzu topo...baina, bertan bizi direnak hain dira zure antzekoak non inoiz izan ez dituzun gauzez aseko zaituzten. Eta hortxe zaudela, ez duzu heriotzean sinetsi nahi izango. Tren geltokia eta bost emakume zain, denak beltzez jantzita, guztiak gogoratzeko zerbait dutelarik, denak hotzak jota.

Cuando la vida pasa delante de ti sin regalarte más que lo justo para seguir viviendo... Te encuentras de repente en un lugar más aterrador que todos los anteriores...pero habitado por seres tan parecidos a ti, que te llenan de lo que nunca tuviste, es ahí cuando no quieres creer en la muerte. Una parada de tren y cinco mujeres que esperan, todas vestidas de negro, todas con algo que recordar, todas con frío.

INTERPRETACIÓN / ANTZESPENA: Salva Alonso, Mentxu del Cid, Begoña Hernández, Vevi Mateos, Josune Martínez

IDEA ORIGINAL / SORKUNTZA: La Calvario

DIRECCIÓN / ZUZENDARITZA: Arrate Etxeberria

VESTUARIO Y ESCENOGRAFIA / JANTZIAK ETA ESZENOGRAFIA:

Burbujas-La Calvario

DISEÑO DE LUCES / ARGIEIEN DISEINUA: Jaime Espeso





Otsailak 24 Febrero

"Incontinencia verbal"

Atakados

C.M. Begoña Udaltegia

Kanpamentu bateko monitore bi, telefono-deia, istripua izan duen laguna eta gezurrak esan ditzakeen gibela; horiek dira, umorearen bidez zenbait egoera konpontzeko, hitza ardatz duen obra.

Dos monitores de un campamento, una llamada telefónica, una amiga accidentada y un hígado que puede mentir, son algunos de los protagonistas de esta obra en la que la palabra se convierte en el motor que lleva a resolver, siempre en clave de humor, distintas situaciones.



Martxoak 3 Marzo

"Han izanik, hona naiz"(euskara)

Apurka

C.M. San Frantzisko Udaltegia

Joseba Sarrionaindiaren bederatzi ipuin txikietan oinarritutako ikuskizuna da. Ipuin laburrak, baina kondensatuak, sugerentziaz eta bitxikeriez beteak, kutsu poetikoa bezain absurdoa darielarik. Sarrionandiak dio honakoak "ipuin sendagaitzak" direla. Ildo honetatik tiraka eta Beckett-en itzala lagun, ikuskizunak "antzerki sendagaitza" ikertu nahi izan du: urtenbide bako egoeren arteko olgeta, umore gaziarekin nahastuta, gizakiaren patua bere gordintasunean plazarazteko.

Este espectáculo está basado en nueve cuentos cortos de Joseba Sarrionaindia. Relatos cortos, pero condensados, llenos de sugerencias y detalles que derraman un sabor tan poético como absurdo. Sarrionaindia dice que estos son "cuentos incurables". Tirando de este hilo y a la sombra de Beckett, el espectáculo ha querido investigar un "teatro incurable": el juego de las situaciones sin salida mezcladas con un humor ácido, el destino de lo enrocado del ser humano que se muestra en toda su crudeza.

"Han izanik, hona naiz"

Joseba Sarrionaindiaren ipuinak
Zuzendaria: Borja Ruiz

APURKA antzerki taldea:
Idoia Alberdi • Jon Gaubeka • Lorea Martinez • Mikel Lisarralde

Martxoak 10 Marzo "Morir (o no)" Periplo C.M. Begoña Udaltegia

Hil ala ez hil. Bizi ala ez bizi. Bat-bateko heriotza, bortitza, zakarra, tragikoa, ikaragarri poetikoa. Bizitza hutsak, erdipurdikoak, gordinak. Burdina goriari oratzea beste egun batez jarraitzeko, irauteko, arnasa hartzeko...ala ez.

Konfiantza, maitasunezko eta gorrotzko harremanak, antzinako norgehiagokak, maitasun akituak, amorrazioa, ez jakitea, nahi ez izatea, ezina, terrenta, halako batean, azken batean zerbait gertatzeko gogoa, bakardadea, nekea, beldurra, ahala... sentimendu larregi istorio bakarrerako.

Obra honek jendearen bizitzan sartuko gaitu. Ez dago heroirik, ez dago tragedia handirik, ez dago amaiera zoriontsu melengarik, egunero hiltzen diren pertsonen egunean eguneko drama besterik ez... eta axolagabekeria alua, hiltzen ez direnen zizpuru aringarria asko jota. Geratzen direnak eta joan doazenak. Inoren patua aldatzen dutenak halabeharrez. Zernahi eginda ere, aldatzea lortuko ez dutenak.

Morir o no. Vivir o no. Muerte instantánea, violenta, trágica, rebelde, terriblemente poética. Vidas vacías, mediocres, desgarradas. Agarrarse a un clavo ardiendo para seguir, continuar, respirar, un día más... o no.

Confianza, relaciones de amor-odio, viejas rivalidades, amor desgastado, rabia, no saber, no querer, no poder, rutina, ganas de que por fin, por fin, pase algo, soledad, cansancio, miedo, poder... demasiados sentimientos para una sola historia.

Esta obra nos lleva a introducirnos en la vida de... gente. No hay héroes, no hay grandes tragedias, no hay finales felices rosa-pastel, sólo el drama cotidiano de las personas que mueren cada día y la tonta indiferencia, quizás un suspiro de alivio, de los que no lo hacen. Los que se quedan y los que se van. Los que cambian el destino de otras personas a base de casualidades. Los que hagan lo que hagan, no lograrán cambiarlo.





Martxoak 17 Marzo

“...a última hora”

Totum

Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI



Lola norbait bere bila etortzearen zain dago. Itxaroten duen bitartean, paradisu ezjakinetatik gutun zehaztugabeak jasotzen ditu.

Anastasiaren oroimena aztoratuta dabil, aurrera eta atzera egiten du denboran eta galduta sentitzen da, gogorik gabe.

Herminia kementsu dago oraindik. Momentuz, bere gaitzak ez dira larriegiak, gertatzen hasiko den zerbaiten abisua bai, ordea.

Askotan denbora gainera erortzen zaigu eta gauza garrantzitsuenak azken ordurako uzten ditugu.

Lola aguarda con la maleta hecha que vengan a buscarla. Mientras espera, recibe postales inciertas desde paraísos desdibujados.

A Anastasia la memoria le da saltos, avanza y retrocede en el tiempo, y se siente perdida, sin ganas.

Herminia conserva el vigor. De momento los achaques son sólo avisos de algo que empieza a suceder.

A menudo el tiempo se nos echa encima y nos queda lo más importante para última hora.

Martxoak 18 Marzo "La más fuerte" Justi Larrinaga / Nia Acosta C.M. Otxarkoaga Udaltegia

Stockholm (Suedia, 1849-1912)

Barruko sentimenduetako antzerkia

Strindberg suediar literatur mugimenduko idazlerik garrantzitsuenen, bikainena eta polemikoena izan zen.

Egia, bere egiak esateko grina, eroriko zena eroriko zela eta ondorioa edozein izanda ere, izan zen idazteko eta izateko bere nortasunaren funtsa.

"La más fuerte" batez ere, Siri bere andrearentzat idatzitako lana da. Antzerkiaren historiako bakarriketarik bikainetakotzat hartua da pieza hau.

Zuzendaria: Jorge Santos.

Antzezleak: Justi Larrinaga, Nia Acosta.

Estocolmo (Suecia 1849-1912)

Teatro íntimo

Strindberg fue el más importante, notable y polémico escritor del movimiento literario sueco.

Su pasión por decir la verdad, su verdad, cayese quién cayese y le costase lo que le costase fue su manera de escribir y de ser.

"La más fuerte" es una pieza escrita especialmente para su mujer Siri. Esta pieza está considerada como uno de los más brillantes monólogos en la historia del teatro.

Dirección: Jorge Santos.

Actrices: Justi Larrinaga, Nia Acosta.



Martxoak 25 Marzo "Cuerpos de barro" Luna llena C.M. San Frantzisko Udaltegia

Hogei... eta batgarren mendeko emakumezkoaren gorputz-atalak gara. Estetikaren eta antiestetikaren ekonomiaren ardatza, botiken eta operazio-gelaren muina. Disfuntzioen eragileak gara; label baten iruzurraren pean zatikatu eta etiketatzen gaituen inperio baten amua, alegia. Azken batean, "eramailereantzeko edertasun" forma duen moldearen bila dabilen buztina gara."

"Somos el despiece femenino del siglo veinte... y uno. Los ejes de la economía estética y antiestética, el centro neurálgico de fármacos y quirófanos. Somos palanca de disfunciones; el cebo de un imperio que nos descuartiza y etiqueta con la farsa de un label. Somos, en definitiva, la arcilla que busca el molde de nuestro tiempo en forma de belleza al portador".



BARRUTIAK / DISTRITOS

DISTRITO 3. BARRUTIA (OTXARKOAGA-TXURDINAGA)

Centro Municipal OTXARKOAGA Udaltegia
Pau Casals, 19

DISTRITO 4. BARRUTIA (BEGOÑA)

Centro Municipal BEGOÑA Udaltegia
Circo Amateur Club Deportivo, 2

DISTRITO 5. BARRUTIA (IBAIONDO)

Centro Municipal SAN FRANTZISKO Udaltegia
Pza. Corazón de María, s/n

Karmelo Ikastola - Solokoetxe BHI
Solokoetxe, 17

DISTRITO 7. BARRUTIA (ERREKALDE)

CEP Ingeniero José Orbegozo - Iturrigorri LHI
Iturrigorri, 46

ANTZOKIRA ZOAZENEAN...

- Bete antzokiko langileen jarraibideak.
- Ezagutu alde zuzenetik ikuskizunari buruzko gorabeherak (egokia den adingabekoentzat, iraupena, gaia etab.).
- Aretoan ezin da sartu janari-edaririk, ezta euritako bustirik ere.
- Ezin da grabatu, ez argazkirik egin.
- Eskuko telefonoak itzalita eduki behar dira ikuskizunak dirauen bitartean. Ezin dira eduki "isilik" moduan.
- Ikuskizuna hasitakoan, ez dugu utziko aretoan sartzen.

CUANDO VOY AL TEATRO...

- Respete las indicaciones del personal de sala.
- Infórmese con anterioridad de las características del espectáculo (idoneidad para menores, duración, temática, etc).
- No se permite entrar en la sala con bebidas o comida, ni con paraguas mojados.
- No se permiten grabaciones, ni fotografías.
- Los teléfonos móviles deben permanecer apagados durante la representación, ni siquiera en modo "silencio".
- Una vez iniciada la representación no se permite el acceso a la sala.

Informazioa / Información: www.bilbao.net · bilbaoeszena@ayto.bilbao.net

Tfn. 010 / Tfn. 94 424 17 00